# Eguberri kantak

2024

zahar eta berriak

OARSO BIDASOKO HITZA

ACM

arkitektura

Santxoenea 4W. Errenteria-Orereta

Tel.: 655 71 41 39

_acmarkitektura_



# egin zaitez HITZAkide

## NIK DUT HITZA

## ETA ZUK?

- **Jaso ostiralero** 32 orriko OARSO BIDASOKO HITZA eta GIPUZKOAKO HITZA.
- **Egunero, interneten,** etenik gabeko jarioa.
- **Harpidedunen abantailak:**
- Zozketak.
- Eskaintzak eta deskontuak.
- Hemeroteka.
- Produktu bereziak eta askoz gehiago.

**Zure herriko informazioa, euskaraz, lantzen dugu. Hazten jarraitzeko, zure ekarpena behar dugu.**

OARSO BIDASOKO HITZA

IRUN KALEA, 8 • ERRENTERIA-ORERETA
943 34 03 30 • oarsobidasoa@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus



Argitaratzailea: Oiartzungo Hedabideak S.M.
Publizitatea: 647 35 42 54
Lege gordailua: SS-0793-03



# KANTU POZA

Karmengo Ama IPI

# HATOR HATOR

**Kantua entzuteko:**
labur.eus/6Y9uj

Hator, hator lagun etxera,
gaztaina ximelak jatera,
gabon gaua ospatutzeko
aitaren t' amaren ondoan;
ikusiko dut aita parrezka
amaren poz atseginez.
Eragion/k lagun aurreko
danbolinari!
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, plum;
gabon gaua pozik igaro daigun.




Hondarribian euskaraz bizi gara
Hondarribiko Udala

# HORRA MARI DOMINGI

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/E7fkH

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela
herrira etorri.
Gurekin nahi baduzu
herrira etorri
atera beharko duzu
gona zahar hori.

Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni!
Hatoz, hatoz zure bila nenbilen ni!
Hatoz goazen ta agurtu dezagun
herrian jaio den haurtxo eder hori
Haur eder hori.



# DIN DAN DON!

Kantua entzuteko:

labur.eus/Zhkcd

Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!

Din dan don, din dan don!
Eguberrion!

Zorion, zorion, Gabonak Gabon!



## OLENTZERO

Hemen heldu gerade
berri on batekin,
gure enbajadore
Olentzerorekin. (bis)

Horra,horra,
gure Olentzero.
Pipa hortzetan duela
exerita dago,
kapoiak ere baita
arrautzatxuakin,
bihar meriendatzeko
botila ardoakin (hiru aldiz).

Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentzioarekin
ikatz egitera.

Aditu duenean
haurra jaio dala,
lasterka etorri da
berri ematera.

Horra,horra...

Olentzero inondik
ezin dugu ase,
osorik jan dizkigu
hamar zerri gazte.
Saiheski ta xolomo,
makina bat heste,
haurra jaio da eta
kontsola zaitezte.

Horra,horra...

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/iHg5y



# GABON GABIAN

Kantua entzuteko:
labur.eus/HvCwe

Gabon gabian ohitutzen degu
guztioak afari ona
bixigu, legatz bakailu saltsa
bakoitzak berak ahal duna
gero txurrun plin plan
ardo ta pattarra
katua hartuta
sagu-saguka.



# OLENTZERO ETA ASTOA

Kantua entzuteko:

labur.eus/kGgV5

Olentzero ta astoa
basora joan dira
bidean galdu eta haserretu dira.

Olentzerok astoai belarritik tira
astoak Olentzeroi praketatik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

Olentzerok astoai belarritik tira
astoak Olentzeroi praketatik tira
Olentzerok astoai buztanetik tira
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.
Tira ta tira elkarrenak dira
tira ta tira konponduko dira.

Hitzak: Leire Bilbao.
Musika: Xabier Zabala.
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua' disko-liburuan argitaratua.



# OLENTZERO BURU HAUNDIA

Kantua entzuteko:

labur.eus/KArV1

Olentzero buru haundia
entendimentuz jantzia,
bart arratsean
edan omen du
hamar arruko zahagia.

Ai, urde tripahaundia!
Tralaralala, tralaralala.
Ai, urde tripahaundia!
Talaralala, tralalala...

Horra,horra,
gure Olentzero.
Pipa hortzetan duela
exerita dago,
kapoiak ere baitu
arrautzatxuekin,
bihar meriendatzeko
botila ardoakin



# URTARO ZURIKO EMAKUMEA

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/OKc6p

Urtaro zuriko emakumea
eskarmentuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
Maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!

Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.

Beldur uxalari gau ilunetan
ondoan dela dirudi benetan.
Urtaro berde, urdin ta marroian
Mari Domingi nahi dut ondoan!
Mari Domingi badut ondoan!

Mari Mari Domingi goxoena
Mari Mari Domingi ausartena
Mari Mari Domingi eztiena
Mari Mari Domingi azkarrena.

Urtaro zuriko emakumea
eskarmentuko artzain andrea
euskaldun guztiok dugu begiko
Maiteko dugu beti-betiko!
Maiteko dugu beti-betiko!

Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslaria: Gorka (Leihotikan)
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# ELURRA TEILATUAN

Kantua entzuteko:

labur.eus/wujL0

Elurra teilatuan
zakua lepoan
ibili beharko degu
aurtengo neguan.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

Hau den/k umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

Hau den/k umoria
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Xirula Mirula bilduma

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA
943 634 536 www.goieko.com
Zorionak eta
urte berri on!

## ARI NAIZELA

Doinua entzuteko:
labur.eus/Ypvre

Ari naizela, ari naizela,
nekatu zaizkit ezpainak.
Etxe hontatik espero ditut
sei erreal ta gaztainak.

Ari naizela, ari naizela,
nekatu zaizkit ezpainak.
Etxe hontatik espero ditut
sei erreal ta gaztainak.



# HARTZAREN SIESTA

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/W76SV

Negua atean joka goazen ba lotara
hartzaren siesta heldu da luze-luzea

Ate handia ongi itxi klok-klok-klok
Pijama jantzi beharra zipi eta zap
Hortzak garbitu ere bai gru-gru-gru
Ipuinaren ordua da bla bla bla

Negua atean joka goazen ba lotara
hartzaren siesta heldu da luze-luzea

Hartz txikik ez du lo egin nahi bua bua bua
Hartz handik esaten dio ssssss
Biberoia hartu behar ttukuttu ttukuttu
Eta bagoaz lotara lo lo lo lo lo

Negua atean joka goazen ba lotara
hartzaren siesta heldu da luze-luzea

Hitzak eta musika:
Urko Oskoz
Abeslariak: Nerea
Urbizu eta Urko Oskoz
'Ene Kantak'en
'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.

ATERPE
HIGIEZIN AGENTZIA
- Alokairuak eta Salmentak.
- Bermea + Segurtasuna.
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen.

1986-TIK
Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com
API

# OLENTZERO SALDA BERO

Kantua entzuteko:

labur.eus/508ko

Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro, zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Zurekin bai tratu ona!

Aitonarentzat hodeiak, aitarentzat euria
amak beretzat nahi du ilargia
amonarentzat, berriz, neguko eguzkia
ta niretzat beste guzti guztia!

Oles aro, gaur da gabona.
Olentzaro zatoz hona.
Orantzaro, hau zoriona!
Olentzero salda bero!

Hitzak: Leire Bilbao
Musika: Xabier Zabala
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua' disko-liburuan argitaratua.



# MARI DOMINGI

Kantua entzuteko:

labur.eus/H5fOR

Erdi sorgin erdi lami
beldurrik ez basoari
lanean kantu kantari
ipurmasailak dantzari.

Anbotoko Mari
besotik heldu ta dantzan doa
haitzuloz haitzulo
ezetz geratu lo!

Goizero jaiki orduko irrintzi
buruzapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
bera da Mari Domingi!
Erdi sorgin erdi lami
Mari Domingi
sustrai azpitik lainoz gaindi
bihotza bera bezain handi.

Goizero jaiki orduko irrintzi
buru zapia askatu erantzi
gonak alderantziz jantzi
GU GARA MARI DOMINGI!!!

Hitzak: Leire Bilbao
Musika: Xabier Zabala
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen
'Musua' disko-liburuan argitaratua.



# OLENTZEROREN OPARIA

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/xxKHf

Astoa gaixo dago.
Olentzero tristerik.
Txabola ikatzez beterik
pilan-pilan udazkenetik.
Ez dauka txabola uzterik
ez etxez etxe ibiltzerik.

Horra, Olentzero
pipa hortzetan.
Gauez ibiltzen da
negu hotzetan (bis).

Arrantzaka astoa
sendatu da gaixoa.
Eskerrik asko amonari
eta bere kataplasmari.
Geroztik gure Olentzero
herrira jaisten da urtero.

Horra, Olentzero
pipa hortzetan.
Gauez ibiltzen da
negu hotzetan (bis).

Urtxintxa bilduma

Jun direnak ikusi ezin ditugulako,
baina bai sentitu

Taloka

KAFE OKINDEGIA GOZOTEGIA

Polentzarrene Kalea, 3
20100 Lezo

T. 943 520 420
www.taloka.net

# OILARRAK KANTA-KANTARI

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/gZe1h

Oilarrak kanta kantari
kukurruku kukurruku
kale jiran dabiltza
kukurruku kukurruku.

Eguarri jaiak ospatzen
kukurruku kukurruku
Haurra jaio da Belenen
kukurruku kukurruku

Atzetik txitoak ere,
txio txio txioka!
Atzekoei ezin segi,
txio txio txioka!

Eguarri gaua ospatzen,
txio txio txioka!
Haurra jaio da Belenen,
txio txio txioka!

Xirula Mirula bilduma

Nagore Cabada
HORTZ KLINIKA
Zorionak! Egin irribarre!
Santa Klara plaza, 2 . 20100 Errenteria
943 017 876 klinikanc@gmail.com

# BIZARZURI

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/FTabh

Gabonak! , Gabonak!
Hau zoriona!
Bertsotan ari zaigu gaur aitona,
ajaja!, barrezka dago amona

Bizarzuri , Bizarzuri
mendi gainak xuri-xuri
Zorionak ! Zorionak !
Bertan ditugu gabonak

Tximini zulotik
norbait sartu da
Mutur beltz, begi gorri, aibalio!
Olentzero dela , halaxe dio

Bizarzuri , Bizarzuri...

Laster urte berri
gaur olentzero,
alferrontzi, mozkor eta tripero
Hor dago sutondoan bero-bero

Bizarzuri , Bizarzuri...

Tranka-tranka trostan
hiru errege
hirurak datoz jator eta legez,
panpin politak ekarri, mesedez

Bizarzuri , Bizarzuri...

Egilea: Imanol Urbieta

SAGASTI
ELIZONDO
Barne Diseinua
Esther eta Anak gabon zoriontsuak opa dizkizuete
Santxoenea, 31. Errenteria. 679703944 - 605765316
www.sagastielizondodecoracion.com

# OLE OLENTZERO

Kantua entzuteko:

labur.eus/YxFgI

Ole olentzero, ole olentzero
ole olentzero, ole olentzero
ole olentzero

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin ikatza egitera (bis)

Horra horra
horra horra
gure olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago (bis)

Ole olentzero, ...
Olentzero buruhandia
entendimentuz jantzia
bart arratsean edan omen du
hamar orruko zagia (bis)

Horra horra
horra horra
gure olentzero
kapoiak ere ba(d)itu
arrautzatxoekin

Horra horra
horra horra
gure olentzero
bihar meriendatzeko botila
ardoakin

Ole olentzero, ...

Musika: Herrikoia
Abeslaria: Nerea Erbiti
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# ELURRA MARA-MARA

Kantua entzuteko:

labur.eus/yBL9G

Elurra mara-mara
elurra mara-mara
txof txof txof txof txof txof txof

Leihotik begiratu dena zuri-zuria

Elurra mara-mara...

Leihotik begiratu elur panpin
handi bat dena zuri-zuria

Elurra mara-mara...

Leihotik begiratu
amona dabil dantzan,
elur panpin handi bat,
dena zuri-zuria
Elurra mara-mara...

Leihotik begiratu
olentzero badator,
amona dabil dantzan,
elur panpin handi bat,
dena zuri-zuria

Hitzak eta Musika: Urko Oskoz
Abeslariak: M. Esain, N. Unzu,
Z. Txokarro eta I. Larrañeta
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# GIZON HANDIA

Kantua entzuteko:

labur.eus/rarz3

Gizon handia hemen duzu
trailara lara trai lara (berriz)

Gure meategiko ikatza
beira, beira olentzero
beira, beira zein polita den
(berriz)

Hotzari aurre egiteko
trailara lara trai lara (berriz)

Irri berotsuak banatzeko
beira, beira olentzero
beira, beira zein goxo
zauden (berriz)
Haurrei erakutsi behar
trailara lara trai lara (berriz)

Opari onena lagun bat dela
beira, beira olentzero
beira, beira zein ederra den
(berriz)

Musika: Meatzarien ereserkia
Hitzak: Urko Oskoz
Abeslariak: Ramon Valenzuela,
Josu Zuñiga eta Iker Bakaikoa
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# NOR OTE?

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/21OEI

Nor ote, olentzeroren laguna
Nor ote, poliki datorrena
(berriz)
Gaixorik ere onenen pare,
hemen dugu aurten ere!
Nor ote, ...
Bi hanka baino gehio ditu,
“eskerrak lau dituen” du
aditu!
Nor ote, ...
Olesera dator gurekin,
bada ez bada loturik.
Nor ote, ...
Zamaz gainezka kaleetan,
elurra nahiz eguzkitan.
Nor ote, ...
Belarri eta buztan luze,
kexatu gabe gauera arte.
Nor ote, ...

Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslariak: Aitor Zubieta eta
Mikel Olazabal
‘Ene Kantak’en ‘Neguari abesten’
diskoan argitaratua.

HAZI, HEZI ETA
BIZI EUSKARAZ
Tel.: 943 51 48 04
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus
Lezo
Herri Eskola
LEZO
INSTITUTUA
LEZO
INSTITUTUA
Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

# LO DAGO

Kantua entzuteko:
labur.eus/oUw6J

Lo dago gure haurtxoa
sehaska goxo beroan
Olentzerok ekarriko
dionaren esperoan.

Ta bitartean
Gabon gabean
Olentzero dator
gurdi gainean.

Ikazkenarekin amets
egiten du haurtxoak
jostailu berriak eta
karamelo goxoak.

Ta bitartean...



# KAX-KAX ATEAN

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/LXLDB

Kax, kax, kax atean
Nor dabil etxean?
Ikusi makusi
Nor naizen ikasi

Kax, kax, kax atean
Praka zabalak
Atorra urdina Ai ene!
ez dakit ezer ez, ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean
Mutur zikina,
txapela beltza.
Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez
Ai ene! Kontatu mesedez.

Kax, kax, kax atean
Pipa ahoan
Ardoa bertan
Bai, bai, bai,
lehen orain eta gero
Zu zara gure Olentzero.



# AGURE ZAHAR NEGU

Kantua entzuteko:

labur.eus/6xX9X

Txilborretik hoztu da agure zahar negu
izozteak, elurra debekatua du
eguraldi gogorra beraixtuko balu.
laister liteke elurra, haur guztien jostailu

Gaztain saltzailea dago gurdiarekin
esku beltzak bete gaztain ke zapore(a)kin
ez dugu danboliñan aurten beharrik egin
batzuk salduko dizkigu jateko afarin
Begi gorri badator aiton olentzaro
urteak egun hainbat begi ta bat gehio
gurdia aiñeko sabel, aurpegi dena aho
nondik nora sortu zen jakin gabe nago

Honengandik egunak hartua du izena
lehengoek subilaro esan ziotena
subil nahiz baztar egur nahiz enbor,
bat dena
etxe bakoitzera bina dakartena

Hego haizeak zerbait urtu digu elur
menditik ekarriko gaur bi baztar egur
haiekin urteari egiteko agur
urte berrira arte bai baitute mutur.

Hitzak eta Musika: Herrikoia
Moldaketak; Nerea Urbizu
Abeslariak: Gabari taldea
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



## TXAMARRA TXARTXO BAT

Kantua entzuteko:

labur.eus/ARE2V

Txamarra txartxo bat, jauna, zuri,
gorputz eder horren estalgarri,
emango nizuke gustu andiz,
luze-laburrean ongi balitz.
¡Ai, oi gabaren on!
¿jaio berri hori non degu, non?

Lagunak ere baditugu;
lau artzai eta bost unai gartsu:
Santxo, Peru eta Martin Anton,
Frantzisko, Paulo, Beltxior, Simon.
¡Ai, oi gabaren on!
¿jaio berri hori non degu, non?"



# AFARIA

Kantua entzuteko:

labur.eus/G2UjL

Kanpoan hotz dago denok
barrura egun berezia gaurkoa
mahaian eserita familia,
lagunak ongi pasatzeko aukera.
Afaltzera goaz gauzatxo
arruntak negua ospatu nahian
porru ta patata arroza ta pasta.
Helduak jarrita izarrak lanean
gaurkoa zuen eguna da
opari onena guztion irriak
familiak ez du gehio behar.
Ta denok jatera irri egitera
gaurko egun berezian
gailetak esnea goxua, pastelak.
Bapo afalduta denok kantari
helduen dantzak hasten dira.
Batzuk mahai gainean kartetan
bertzik momentu ahaztezina hau.

Ta dena biltzera muxu ematera
hori opari onena
merkea, geurea benetan, denena
Kanpoan hotz dago
denok barrura
egun berezia gaurkoa
egun berezia gaurkoa

Musika: Herrikoia
Hitzak: Urko Oskoz
Abeslaria: Estitxu Fernandez
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# NEGUA HELDU DA

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/KA36h

Negua heldu da ia
Hona gure etxe aldera
Dena txuri dago baina
Goazen denok jolastera

Jantzi eskularruak
Tapauka eta txanoa
Kanpoan hotz dago baina
Irrifarra dugu ahoan

Zuhaitzak ezkutatzen ari dira
Hainbat animalia lotan
Txoriak patioan janari bila
Sua pizteko garaia heldu da

Egun motzak
Gau luze xamarrak
Lagunekin ongi
Pasatzeko aukera
Elur malutak eskutan hartuta
Goazen panpina bat egitera

Egun motzak
Gau luze xamarrak
Lagunekin ongi
Pasatzeko aukera
Elur malutak eskutan hartuta
Goazen panpina bat egitera

Musika eta Hitzak: Urko Oskoz
Abeslaria: Urko Oskoz
‘Ene Kantak’en ‘Neguari abesten’ diskoan argitaratua.



# GABONAK DATOZELA ETA

Kantua entzuteko:

labur.eus/lsXau

Gabonak datozela ta
jendearen tarrapata
erosketa da nagusi,
adornua ta zarata.

Gabonak datozela ta
zelofan paper de plata
nahiz epetan, nahiz zorretan
kapritxorik ez da falta.

Txanpo-txanpanak botaka,
itxura hala dela-ta
letra ederrik helduko
zaigu, Gabonak pasata.

Gabonak zetoztela ta
bota genuena falta,
ez da erraza izango
urtarrileko aldapa.

Gabonak zetoztela ta
zelofan paper de plata
gastatu dugu soldata
bukatu da tarrapata.

Gabonen pozarren gatoz
pozik barruz eta kanpoz
zuei ere Gabon-poza
opa dizuegu gogoz.

Egilea: Gontzal Mendibil

www.koldomitxelenaikastetxea.com

KOLDO MITXELENA
Herri Ikastetxea

Goiz txokoa: 07:30-09:00. Jangela. Garraioa

Fernandez de Landa z/g. Errenteria-Orereta.
Tel.: 943 51 43 72 - 012905aa@hezkuntza.net

# MAITE DUT NEGUA

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/1Su8s

Nik maite dut negua
hotza eta elurra
nik maite dut negua
senide ta lagunak

Nahi dut txokolate beroa bai, bai
nahi dut eskiatu mendian bai, bai
nahi dut olentzero etxian bai, bai
nahi dut panpin lodia jantzita
bai, bai

Nik maite.....

Ez dut nahi hondartza ikusi ez, ez
ez dut nahi kremaz gorputza
busti ez, ez
ez dut nahi izozkia urturik ez, ez
ez dut nahi berorik ez, ez, ez

Nik maite.....

Nahi dut mendi txuri-txuria
bai, bai
nahi dut argi gutxi kaletan bai, bai
ez dut nahi zuhaitzak mozterik
ez, ez
ez dut nahi erosketa handirik
ez, ez

Nik maite...

Hitzak eta musika: Urko Oskoz
Abeslaria: Uxue Alberdi
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# DRINGILIN DRON

Kantua entzuteko:

labur.eus/5h26Q

Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon. (bis)

Maskelu bete, aza egosi,
hori, zuri (e)ta gorriak,
berehala irentsi neutsazan
azkenengoko orriak. (bis)

Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela betea daukat eta
besteak hor konpon. (bis)



# AGUR, ESKERRIK ASKO

Doinua entzuteko:

labur.eus/7ulW6

Agur, eskerrik asko,
Agur, etxekoak.
Hurrengo urte arte
hemendik bagoaz,
hemendik bagoaz.

Gaur da Olentzero ta
bihar Eguberri.
Etxeko andre maitea,
txanpon bat edo bi,
txanpon bat edo bi.



# NEGUKO OPORRAK

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/tJTqQ

Negua da, abendua, kalean jolastu gara
elurretan, blai eginda,
goazen sutondora di-da!

Eskularruak, katiuskak kendu etxeko
atarian
eta ez ahaztu txano bustia
eskutan hartzeaz

Negua da, ...

Hortzak kla-kla-ka, eskuak more
hotzarekin normala
noiz pasako zait, hau da hau mina hau da
hau dardara!!

Negua da, ...

Txingurritu zait gorputz osoa
ez da seinale txarra
orain jantziak berogailura biharko lehorrak

Negua da, ...

Gaur euria da, protagonista
elurra desegin da
baina berdin du, putzuak daude!
saltoka ariko gara!!

Negua da, urtarrila, kalean jolastu gara
euripean, blai eginda,
goazen sutondora di-da!

Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslaria: Igor Elortza
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten'
diskoan argitaratua.



# ZU GABE

**Kantua entzuteko:**

labur.eus/Twn1T

Etxeko atean gaur ez zaude zu baina
musu batek busti dit goiko ezpaina
Salako besaulkian falta zara baina
nik somatzen dut zure sagar usaina

Zu gabe.... zeruan izarrak laino daude

Pasilloan ez dabil pauso hotsik baina
bai zure ibilera aitzeko aina
Sukaldeko leihoa hutsik dago baina
erretzen dabil labe bete gaztaina

Zu gabe... zeruan izarrak laino daude
Zu gabe... gaur nire begiak lanbro daude
Mahai ertzeko aulkian ez da inor baina
aurten ere atera dizut txanpaina

Kanturako laguna gaur eskas dut baina
zuri koplari dantzan daukat mingaina

Zu gabe... zeruan izarrak laino daude
Zu gabe... gaur nire begiak lanbro daude
Zu gabe... begiak izar nirekin zaude

Musika: Herrikoia
Hitzak: Igor Elortza
Abeslaria: Nerea Urbizu
'Ene Kantak'en 'Neguari abesten' diskoan argitaratua.



# OLENTZERO SAN PEDRO HERRIAN

Olentzero datorkigu San Pedro herrira,
bizkarrean zaku haundia zerekin beteta?
Ikatza ala jostailu ume guztiontzat
ez dago oso ziurra zer sartu barruan.

Atzo berandu arte tute jolasean
makarrak begietan ireki ezinean...

Olentzero datorkigu San Pedro herrira
Torreatzetik Salbiora galduta dijoa.
Zamateten egon da frontoiaren bila
azkenean Kanpitxun agertu omen da.

Ohetik altxa danean sentitu du hotza
patxarra tragu batekin ez da izan nahikoa...

Olentzero datorkigu San Pedro herrira
bide zuzen hartu baina hanka okertuta.
Ibiltzeko modua, brinko ta saltoa
akaso liztor baten ziztada oinean?

Mari Domingik atzo abarka barruan
garbantzu gogor pare bat
sartu dio brometan...

Olentzero iritsi da San Pedro herrira
begi garbi, formal eta garbantzuk kenduta.
Kantatzeko gogoak ez zaizkio falta
goazen denok batera akonpainatzera.

San Pedroko kanta herrikoia



# TXIKITO

Bat oilarra kalian,
Bestia portalian,
karakolak biltzen otarrian,
"siento" bi errialian.
Kukurruku! Zer diozu?
Guk txikito nahi ttugu
Txikito! Txikito!

Hondarribiko kanta herrikoia



# ONGI ETORRI URTE BERRI

Kantua entzuteko:

labur.eus/lhioq

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean (berriz)

Agur urte zaharrari,
ta kaixo berriari.
afalostean ere,
segi kantu kontari

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean (berriz).

Aukera on guztiei
gogotsu egin leku
3, 2, 1, 12
kanpai hots ditut entzun!

Urteko azken eguna
ospatuko duguna
mahatsa jan ala ez jan
datorkiguna bidean (berriz)

Hitzak eta Musika: Nerea Urbizu
Abeslariak: Urko Aristi
‘Ene Kantak’en ‘Neguari abesten’ diskoan argitaratua.



# ESAERA ZAHARRAK

**Kantuek ez ezik, esaera zaharrek ere lekua dute Gabonetan. Hona hemen horietako batzuk:**

- Abendua jai huts eta gau huts.
- Eguarrietan eguzkia; pazkoetan elurra.
- Eguberriko aro beroak, bazkokoz histen.
- Eguberriz leihoan, bazkoz sutondoan.
- Eguberritan eguzkia, bazkotan elurra.
- Eguberri argi, lastotsu ogi.
- Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu.
- Eguberrirainoko larrazkena, pazko arteko neguaren ama.
- Eguberriz itzalketa dabilanak bilatuko du pazkoz supazterra.
- Eguberriz ulitzak... kasu! Ikusiko dituzu Pazkoz horma ziriak.
- Eguberri ilunetan soroetan gari asko.
- Eguarri ondorengo lehenbiziko sei egunak nolako, hurrengo urteko lehenbiziko sei hilabeteak halako.
- Eguberri, arimak ere berri.
- Eguberri berri, nik atorra berri; maukarik ez, ajolik ez.
- Eguberri, eroak igerri, zohiek ere larri.
- Eguberri ilargiarekin, artzaina axuriekin.
- Eguberritan ilbera, inauteriz ilberri.
- Sua! Gabonetan txapan eta San Juanetan plazan.
- Urte zaharra bukatzean, saguzaharra burduntzian.

GUTUNA: ........................................

IZENA: ........................................

ABIZENAK: ........................................




MERKATAR OSTALAR HITZA ETA ZERBITZU GIDA


GIPUZKOA
Ekin.
Gipuzkoa oparoagoa izateko.
Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituena.
Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezen.
GIPUZKOA
Foru Aldundia